

## Zenbateko finko bat ordainduta

**43 €-ko<sup>(1)</sup> urteko komisioa du, kreditu-txartela jaulkitzeagatik eta mantentzeagatik. Lehen kuotan ordainduko da osorik eta kapitalari gehituko.**

- ITN: % 17,52 urtean.
- Kredituaren muga 1.500 €.

**Epekako ordainketa, hilero zenbateko finko bat ordainduta:** hilero zenbateko finko bat ordainduko duzu, hauek barne dituen: kapitala, aldiaren interes guztiak eta likidazio-aldian sortutako komisioak, bere osotasunean. Gutxieneko hileko zenbatekoa 12 € da, eta aukeratu ahal izango da handiagoa den edozein kopuru.

Kuota finkoko ordainketa aukeratzen bada, ordainagiria likidazio-hilabetearen hurrengo hilabeteko 5ean ordaintzen bada, txartelaren kreditu-muga 1.500 € bada eta zenbateko hori duen erosketa bakarra egiten bada, txartela kontratatzen den egun berean (adibidez, maiatzaren 1ean), urteko interes-tasa nominala % 17,52 izanik eta 145 euroko hileko kuotarekin (kapitala, interesak eta komisioak barne hartuko dituen), hau ordainduko duzu:

- 145 euroko 11 kuota. Lehen kuotak urteko komisioaren guztizko zenbatekoa du, kreditu-txartelaren jaulkimen eta mantentzeagatikoa. 43 €-koa da komisioa; ondorioz, emandako guztizko zenbatekoa baino gutxiago amortizatuko duzu. Komisio hau hilabetearen 20an likidatzen da.
- Azken kuota 97,5 €-koa da.
- Ordaindu beharreko guztizko zenbatekoa 1.692,50 € da eta **UTBa, berriz, %25,41.**

Hileko kuota hilabete bakoitzaren 20an likidatuko da. Hala ere, ordainagiria 5ean ordaintzea aukeratzen baduzu, interesak ordainduko dituzu kuota horrengatik likidazio-datatik ordainketa-dataraino.

Kreditu-txartela jaulkitzeagatik eta mantentzeagatik urteko komisiorik ordaindu behar ez balitz, baldintzen arabera, 12 hilabetean guztira ordaindu beharreko zenbatekoa 1.642,04 € litzateke (145 €-ko 11 kuota eta azkena 47,04 €-koa) eta **UTBa %18,95.**

Hileko gutxieneko zenbatekoa ezin du izan "Kreditu-txarteleko kontua"-ren laburpenaren saldoaren % 3 baino gutxiago likidazioa baino lehen, gehi sortutako interesak eta dagozkion komisioak, dagozkion hileko likidazio-aldian.

## Ordainketa pertsonalizatua interesekin

- **Kreditu-txartela jaulkitzeagatik eta mantentzeagatik urteko komisioa: 43 € (1).**
- ITN: % 18 urtean.
- Kredituaren muga 1.500 €.

Balitzko kreditu-muga 1.500 eurokoa izango balitz, mugaren balio osoa duen erosketa bat egiten baduzu txartela kontratatutako egunean (esate baterako, maiatzaren 1ean) eta 12 hilabeteetan ordaintzea aukeratzen baduzu, hau ordainduko duzu:

- lehenengo kuota 65,93 €-koa izango da; interesak eta kreditu-txartel bat jaulkitzeagatik eta mantentzeagatik komisioa (43 €) hartzen ditu barne soilik.
- Hurrengo 11 kuotak 148,94 eurokoak izango dira bakoitza.
- Guztira ordaindu beharreko zenbatekoa 1.704,27 euro da, eta **UTBa, berriz, % 25,87.**
- Kreditu-txartela jaulkitzeagatik eta mantentzeagatik urteko komisiorik ordaindu behar ez balitz, baldintzen arabera, 12 hilabetean guztira ordaindu beharreko zenbatekoa 1.661,27 € litzateke eta **UTBa %19,63.**

## Ordainketa pertsonalizatua komisioarekin

- **Kreditu-txartela jaulkitzeagatik eta mantentzeagatik urteko komisioa: 43 €<sup>(1)</sup>.**
- **Atzerapen komisioa:** % 2,9, % 3,6, % 4,3 edo % 5 atzeratutako zenbatekoan, aukeratutako epearen arabera, 3, 4, 5 edo 6 hilabetetan.
- **Kredituaren muga 1.500 €.**

Hemen zehazten dira ordainketa pertsonalizatuko adibideak, 3 eta 6 hilabete arteko komisioarekin, gehieneko eta gutxieneko UTBarekin. Kasu guztietan ITNa % 0 da.

Balitzko kreditu-muga 1.500 €-koa izango balitz, mugaren balio osoa duen erosketa bat egiten baduzu txartela kontratatutako egunean (esate baterako, maiatzaren 1ean) eta **6 hilabetetan** ordaintzea aukeratzten baduzu, hau ordainduko duzu:

- Lehen kuota 368 eurokoa izango da, eta barne dago kapitalari dagokion zatia, atzeratzeagatik komisioa (finantzatutako zenbatekoaren % 5) eta kreditu-txartel bat jaulkitzeagatik eta mantentzeagatik urteko komisioaren guztizko zenbatekoa, hots, 43 €.
- Hurrengo 5 kuotak 250 eurokoak izango dira bakoitza.
- Guztira ordaindu beharreko zenbatekoa 1.618,00 € da, eta **UTBa, berriz, % 31,96.**
- Kreditu txartela jaulkitzeagatik eta mantentzeagatik urteko komisorik ordaindu behar ez balitz (kontsultatu baldintzak), **6 hilabetean** guztira ordaindu beharreko zenbatekoa 1.575,00 € litzateke eta **UTBa % 19,07.**

Balitzko kreditu-muga 1.500 €-koa izango balitz, mugaren balio osoa duen erosketa bat egiten baduzu txartela kontratatutako egunean (esate baterako, maiatzaren 1ean) eta **3 hilabetetan** ordaintzea aukeratzten baduzu, hau ordainduko duzu:

- Lehen kuota 586,50 €-koa izango da, eta barne dago kapitalari dagokion zatia, atzeratzeagatik komisioa (finantzatutako zenbatekoaren % 2,9) eta kreditu-txartel bat jaulkitzeagatik eta mantentzeagatik urteko komisioaren guztizko zenbatekoa, hots, 43 €.
- Hurrengo 2 kuotak 500 eurokoak izango dira bakoitza.
- Ordaindu beharreko guztizko zenbatekoa 1.586,50 € da eta UTBa, berriz, 41,99%.
- Kreditu txartela jaulkitzeagatik eta mantentzeagatik urteko komisorik ordaindu behar ez balitz (kontsultatu baldintzak), **3 hilabetean** guztira ordaindu beharreko zenbatekoa 1.543,50 € litzateke eta UTBa %19,23.

Sistema hau eskatu den likidazio jakin bakoitzari aplikatzen zaio berariaz.

(1) Kontsultatu baldintzak urteko komisioa salbuesteko kontuaren kontratua jaulkitzeagatik eta mantentzeagatik.